

AISIALDIA: atsegina bada ere, ez da beti askatasunez bizitzeko modukoa

- Jaietan ikusgaitasuna handitzeko kanpainak egitea.
- LGBTI+ pertsonentzako puntu koloredunak eta puntu moreak uztartzen jarraitzea.
- Bermeoko aisialdia antolatzean LGBTI+ komunitatea kontuan izatea.
- LGBTI+ Zinema zikloa antolatzen jarraitzea.
- Udal-instalazioetako komun eta aldagela ez-bitarrak sortu, egokitu eta sozializatzea.
- Kirol-elkarteetan prestakuntza eskaintzea eta LGBTIfobiaren aurkako nazioarteko egunean (otsailak 19) elkarlanean kanpaina diseinatzea.
- Maskulinizatutako kiroletan emakumeen taldeak berreskuratzeko ahalegina egitea kirol-elkarteekin batera.

HEZKUNTZA: Eskolan aurrerapenak badaude, baina oraindik ikasle askok ez dute beren burua seguru eta aske sentitzen

- Trans errealitateak lantzen jarraitzea eskolan, guraso eta irakasleentzako formazio-saioen bidez.
- Guraso- eskolan sexu-aniztasuna lantzen jarraitzea
- Hezkidetza eta Bermesex programak birplanteatzea. Eta, horretarako, kultura errestituatiboaren begiradatik lan egitea.
- Belaunaldi berriek herrian LGBTI+ erreferente positiboak ezagutzeko materiala sortu eta zabaltzea.
- Bullying LGBTI+fobikoaren kontrako prebentziozko programak txertatzea.

OSASUNA: Osasun-zerbitzuetan ez da tratatu txar larririk, baina askok ez dute beren burua ongi ulertua edo errespetatua sentitzen

- Sexu-transmisiozko infekzioen inguruko estigma lantzea.
- Sexu-harreman seguruak izateko doako materiala banatzea espazio publikoetan.
- Osasun-zentroko itxarongetan ikusgarritasunerako udal-kanpainak zabaltzea.
- Udalak doako aholkularitza psikologikoa sortzea edota Bermesex horretarako erabiltzea.

PARTE-HARTZE POLITIKOA: Udalarekiko konfiantza badago, baina gehiago egin daiteke LGTBI+ pertsonak gehiago entzunak eta ikusgarriagoak izan daitezen.

- LGBTI+ memoriari buruzko lanketak egitea eta lanketa horiek sozializatzea.
- Herriko LGBTI+ komunitatearekin kontsultarako eta aholkularitzarako LGBTI+ mahai bat martxan jartzea.

Bermeoko LGTBI+ udal-diagnostikoa



HIRUKI
LARROXA

EMAKUNDE
EMAKUNEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Euskadiko autonomia erkundearen
EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO

BERMEOKO
UDALA


1. Bermeo: isil-isilik dago...

Bermeon LGBTI+ pertsonak badaude, baina askok ezkutuan edo isilik bizi dute egoera, herrian gaiaz gutxi hitz egiten delako eta espazio publikoak beti erosoak ez direlako

"Badakigu badaudela, bagaudela, baina ez da horretaz hitz egiten."

"Gehixen bat irainek diez. Pertsona bat ezagutu barik esan: ese es maricón."

"Ez naiz agertzen herrian, baina nire lagunartean dena da natural. Ez dut herriko jendearekin konfiantzarik."



2. LGBTIfobia

Askotan ez dago irain edo eraso zuzenik, baina bai begiradak, txutxu-mutxuak eta esamesak, eta horrek askori beldurra edo ezinegona eragiten die.

"Ez da erasorik, baina bai begiradak, komentarioak eta txutxu-mutxuak."

"Parrandan gutxitan muxu ematen dugu, beti norbaitek zerbait esan behar digu ta. Mono de feria konplexua izaten dugu."

"Institutu garaiak zailak. Nik uste dot dala leku oso hostile bet."




3. Gizonkeria: deserosotasuna eta armairua

Gizonen artean oraindik ere jarrera matxistak eta lotsagarriak saritu egiten dira, eta horrek zaildu egiten du gizon gay edo maritxuek beren burua askatasunez adieraztea eta LGBTI+ pertsonentzat zein emakumeentzat espazio ez- seguruak sortzen ditu.

"Hau da herri bat nun macho alfak egiten diraz baloratu."

"Matxirulismue a tope... entzuten da: maricon! maricon!"

"Txokoak tradizionalak dira, eta emakumeentzat ez dira espazio erosoak."



4. Bizirauteko estrategiak: sexilioa, diskrezioa eta sare txikiak

Askok herritik alde egin dute askeago sentitzeko, eta beste askok beren burua ezkutuan gordetzen dute edo ingurune jakin batzuetan baino ez dira agertzen.

"Bilbora jun nitzen apur bet hau txiki geratu daztelakon."

"Nire burue armatzeko kanpora urten behar izan dot."

"Etxean ez nai gai izan sekula esateko nor maite dudan."



5. Bizirauteko, bizigarritasun kolektibora: saretzearen premia

Bermeon ez dago LGBTI+ kolektiborik eta horrek zaildu egiten du elkar ezagutzea eta laguntzea, nahiz eta LGBTI+ pertsona asko dauden.

"Bermion inoiz ez da egon LGTB talde bat edo zirkulu bat."

"Ikusten dira batzuk, baina bakoitzak bere aldetik bizi du."

"Josu Unanue... herrian errespetatua eta miretsia."



LGBTI+ POLITIKA PUBLIKOAK GARATZEKO EKINTZAK

ESPazio PUBLIKOA: Segurua, baina ez guztiz askatasunez bizitzekoa

- LGBTI+fobia zer den ezagutzera emateko kanpaina instituzionala.
- LGBTI+ protokoloa eratzea. eta sentsibilizazio-saioak eskaintzea herriko eragileei.
- Herriko idiosinkrasiak dakartzan indarkeriazko dinamikak identifikatu eta lantzea.
- Herriko komertzioetan LGBTI+ herritarrei ongietorria ematen dieten pegatinak jartzea.
- Nerabe eta gazteekin sexu-genero aniztasuna lantzen jarraitzea.
- Harrotasun eguna ospatzea herritarren parte hartzearekin batera.
- Egun berezietan banderak udaletxean jartzen jarraitzea.
- Herritar berrientzako harrera- protokoloa diseinatzean, LGBTI+ komunitatea kontuan izatea.
- Sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza udal-langileentzat.
- LGBTI+ pertsonak artatzeko barne-protokoloa sortzea, polizia-etxean edota kaleko esku-hartzeetan erabiltzeko.
- Hirigintzari lotuta, leku ez- seguruak gutxitu edo desagerrarazteko neurriak.

